

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1738

5/2018 DEKRETUA, martxoaren 22koa, lehendakariarena, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordeko kide bat aldatzeko dena.

Lehendakariaren urriaren 21eko 21/2014 Dekretuaren bitartez, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordeko kideak izendatu ziren. Kide horiek batzordean ordezkatuta dauden erakundeek aldeztu aurretik aukeratu zituzten. Geroago, lehendakariaren otsailaren 23ko 6/2017 Dekretuaren bitartez, eguneratu egin ziren izendapenak, eta uztailaren 17ko 20/2017 Dekretuaren bitartez, beste kide bat aldatu zen.

Lan eta Justizia Sailak beste kide bat aldatu du; beraz, bidezkoa da beste kide bat izendatzea ordezkatuari geratzen zaion agintaldirako.

Euskal gizataldeekiko harremanetarako organoak arautzen dituen apirilaren 11ko 234/1995 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.– Mikel Unzalu Hermosa jauna izendatzea Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordeko kide, Lan eta Justizia Saileko lan eta gizarte-segurantza arloak ordezkatzeko, Jon Azkue Manterola jaunaren ordeztu.

Bigarren artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 22an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.